

Lasarte-Oriak bat egin du, oraindik orain, Kudeatuz proiektuaren bigarren edizioarekin, zeinaren helburua baita herritarrek zerbitzu publikoei buruz zenbateko satisfazio-maila duten jakitea eta herritarren parte-hartzea bultzatzea.

Joan den uztailean, Lasarte-Oriako Udalak, beste bederatzi udalekin batera, hitzarmen bat sinatu zuen Gipuzkoako Aldundiarekin, zeinek guztira 100.000 euroko diru-laguntza xedatu baitu programa honetara, azterlanen eta herritarrek parte hartzeko prozesuen gastuei aurre egiteko.

Ingurumeneko arlo honetatik, 2008an berriro aktibatu genuen herritarren iritzia jakiteko eta geureganatzeko dinamika, zenbait mekanismoren bitartez, hala nola hondakinen kudeaketaz herritarrek zuten pertzepzioaren inkesta eta gai horretan nahiz mugikortasuna bezalako beste gai batzuetan zentratutako herritar-foroak, eta berriz ere funtsezko bi ardatzen alde egiten dugu apustu: Udalaren zerbitzuei buruz herritarrek zer pertzepzio duten jakitea eta foro iraunkor bat eratzea, araudiz eta egituraz hornitua eta hainbat mahai sektorialez osatua.

Horretarako, telefono bidezko 550 inkesta egingo dira datozen hilabeteotan, eta galde-sorta bat ere jarritako da eskura, nahi duen herritar orok edozein iradokizun egin ahal dezan, zeina azterlanean jasoko baita. Horrekin paraleloan, herritarren parte-hartzea bultzatuko da, Agenda 21 Lokalaren foro iraunkor bat eratzeke bilkura berriekin, eta berriro helduko zaio Ingurumeneko arloak egindako lanari. Hain zuzen ere, deialdi bat egin zien herritar guztiei, herritarren foroaren lau saioetan parte har zezaten, eta horien emaitzak eskuragai daude web-orri honetan: www.lasarte-oria.org/eu/html/13/170.shtml